


Goi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleen erronka

2016/04/05

Mondragon Goi Eskola Politeknikoko ikasle talde batek, **ROBOTEK** izenarekin, robot bat diseinatu, fabrikatu, muntatu eta programatu du de Europako FTC (FIRST Tech Challenge) txapelketan parte hartzeko, zeina Eindhoven-en egin zen apirilaren 1, 2 eta 3an.

Aurtengo edizioan, robotek beste lan batzuen arteak pilota eta kubo batzuk saki batzuetan sartu behar izan dituzte. Urtero bezala, lehenengo zatian robotak modu autonomoan jardun du 30 segundoz eta ondoren, bi minutu eskuzko aginduekin.

Hemen ikusi dezakezue FIRST erakundeak aurtengo ediziorako prestatutako erronka:



Hauek dira txapelketan parte hartzeko aukera izan duten zazpi ikasleak: Jan García (Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko 2. maila), Gorka Kerejeta (Automatizazioko eta Robotika Industrialeko 2. maila), Aritz Atxaga (Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko 2. maila), Maite Deza (Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko 2. maila), David Rodriguez (Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioko 2. maila), Mikel Burguera (Sareko Informatika Sistemen Administrazio 1. maila) eta Olatz Pagalday (Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko 1. maila). Esperientzia honetan Mikel García irakaslearen laguntza izan dute.

Zortzi pertsona hauez gain, Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko 2. mailako ikasle eta irakasle hauek ere parte hartu zuten proiektuan, nahiz eta Eindhoven-era ez ziren joan: Xabier Cid, Iñigo Idiaquez, Nerea Oria, Maria Aranberri, Gorka Martin, Julen Maskariano, Ferran Zambrano, Endika Gandarias (irakaslea) eta Javier Arkauz (irakaslea). Esperientzia honetan ezin ditugu babesleak ahaztu, Danobat Taldea, Mondragon Assembly, Mondragon Taldea, Fagor Automation eta Erle Tailerra.

FTC txapelketan izen eman zuten 50 robotetatik 44k bakarrik parte hartu zuten. Gure ikasleek saririk lortu ez duten arren, ikasleentzat esperientzia oso aberasgarria izan da. Horregatik, datorren urtean berriaz ere saiatuko gara.